

Elkarteen udal erregistroaren ordenantzaren aldaketa. Onespena.

PASAIAKO UDALA

Iragarkia

Udalbatzarrak 2000ko azaroaren 27an besteak beste hurrengo akordioa hartu du:

Ontzat ematea Elkargoen Udal Erregistroaren Ordenantza Erregulatzailea modifikatzea hurrengo terminoetan:

Lehenengo.

ZIOEN AZALPENA

Udal honek hainbat laguntza eman die udalerrian operatzen duten Irabazi Asmorik gabeko Elkargoei. Gainera hauek Udalarekin kolaboratu dute udalaren bizitzan.

Aipatu Elkargoekin izandako harremanak udal-intereseko bihurtzen dituzte. Baina ez dago gisa horretako aitortpen formalik eta ezta Elkargo hauen guztien ezagutza zorrotz bat ere.

Bestalde onartu egin da urriaren 28ko 6/1997 Arau Forala, zeinen bidez modifikatu baita apirilaren 20 1/1993 Foru dekretu Normatiboa, zeinen bidez Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateratua. Esandako Arau Foralean aipatzen diren onurak aplikatzeko beharrezkoa da Udal Intereseko Elkargoaren aitortpen espresua.

Herrian egon daitezkeen Udal Intereseko Elkargoen tresna deklaratio eta informatio bat edukitzeko sortu da Elkargoen Udal Erregistroa.

Azkenik Erregistro honen izaera eta helburuak izango dira Entitate Lokalen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko 232. eta hurrengo artikuluen arabekoak eta hurrengo eran arautuko da:

Lehenengo.

Elkargoen Udal Erregistroa sortu da eta bertan jasoko dira hirugarren puntuan aipatzen diren datuak.

Bigarren.

Erregistroan inskribatzea eskatu ahalko dute: Irabazi Asmorik gabeko Elkargoei Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurtasunaren Saileko Elkargoen Erregistroan behar bezala inskribatuak baldin badaude.

Hirugarren.

Elkargo interesatuek Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dute eskaera hurrengo dokumentazioarekin:

3.1. Elkargoen erregistroan inskribatzeko:

—IFK-ren fotokopia.

—Eusko Jaurlaritzako Elkargoen Erregistroan inskribatuta egotearen agiri eguneratua.

—Zuzendaritzako izen osoak.

—Udal interesekoa izatea kreditatzeko zerbitzu eta jardueren memoria.

—Elkargoaren urteko aurrekontua.

—Titularra elkargoa izango den bankuko kontuaren zenbakia.

3.2. Gainera udal-intereseko elkargo deklaratzeko eskaera egiten bada:

—Bere jarduera ez dela profesionala justifikatzeko memoria.

Laugarren.

4.1. Inskripzioa bakarrik nahi bada:

Dagokion Sailak Idazkaritzaren Sailari bidaliko dio espedientea dagokion Batzorde Informatiboaren aldeko txostenarekin.

4.2. Gainera udal-intereseko elkargo deklaratzeko eskaera egiten bada:

Dagokion Sailak Kontuhartzaitzaren Sailari bidaliko dio espedientea dagokion Batzorde Informatiboaren aldeko txostenarekin, zeinek Haziendako Batzordearen diktamenarekin, Udaltzari igorriko dion.

Bostgarren.

Elkargoen Udal Erregistroan inskribatzeak ez du esan nahi Udal Intereseko Elkargo deklaratzeko dela.

Seigarren.

Elkargoen Udal Erregistroa Idazkaritza Nagusiaren kargu egongo da, eta Sail hau izango delarik inskribapen-eskaeren arduraduna.

Zazpigarren.

Erregistroa urtero errebisatuko da.

Zortzigarren.

Erregistroko inskribapena anulatu ahalko da udalarekin kolaboratzearen kontrako jarduerak dituela kontsideratzen bada. Aipatu anulazioa motibatua egongo da eta horretarako irekitako espedientean audientziaren izapidea bete beharko da.

Bederatzigarren.

Inskribatutako Elkargoaren obligazioa izango da elementuren batean nolabaiteko aldakuntzarik izan bada hala jakinaraztea.

Hamargarren.

Udal-intereseko deklaratuak izan diren Elkargoek urriaren 28ko 6/1997 Foru Arauan biltzen diren onura fiskalak gozatuko dituzte, zeinen bidez modifikatu baitzen apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Normatiboa, zeinen bidez onartu baitzen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateratua eta diktatu daitezkeen gainerakoak ere aipatu arautegiak eskatzen dituen betebeharrak konplitzen badira.

Hamaikagarren.

Elkargo interesatuek noiznahi eskatu ahalko dute inskribapena eta deklarazioa.

Hamabigarren.

Ebazpen honen berri emango zaie Udalerriko Elkargo guztiei jakinean egon daitezen.

Azken Xedapena.

Sortutako Erregistroak Udal Arautegi Organikoan arautzen ez den bitartean edota kasu balitz Elkargoen Arautegian, Entitate Lokalen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Arautegiko 232, 233, 234 eta 236 artikuluek aitortzen dituzten erregimen eta helburuen jabe izango da, azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekretuaren bidez onartua.

Bigarren.

Behin-behineko akordio hau herriari erakutsiko zaio Udaletxe honetako Iragarkien Taulan jarritz eta Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala publikatuz hilabeteko epean interesatuek espedientea azter dezaten eta egokiak derizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Hirugarren.

Behin-behineko onarpen hau behin-betiko bihurtuko da herriaren audientzia burutzeko epea igarota gero akordio honen aurka alegaziorik ez bada aurkeztu.

Pasaia, 2000ko azaroaren 27a.—Juan Carlos Alduntzin Juanena, Alkatea.

(81) (295)